



AKTA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko irailaren 13an buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko martxoaren hogeita bian, Jose Francisco Mendizabal Irigoien Alkate jauna mahaiburu delarik, Gorka Unanue Zabala eta Mikel Arregi Urrutia korporakideak bildu dira.

Ondorengo akordioak hartu dira:

- 1.- Bere osotasunean onartzen da Gobernu Batzordeak 2018ko uztailaren 26an buruturiko saioari dagokion akta.
- 2.- J.L.E.A., Arroa Beheko Artzubia aldea ibardiaren berreskurapen eta hobetze lanen inguruko kamioi erregistroa aurkezten du, 2018ko uzaileko eta abuztuko hilabetei dagokiona. Erabaki da jaso izanaren adierazpena egitea.
- 3.- S.F.A., kiroldegiko eraberritze eta haunditze lanen 7. zertifikazioa aurkezten du. Erabaki da ontzat ematea.
- 4.- G.Z.ri, Zubimusu kalea 3 eraikinean, ElTaren ondoren azaldutako hutsuneen konponketarako obretako udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.
- 5.- O.E.Eri, Narkis Balentziaga kalea 12 3A etxebizitzako sukaldean obrak egiteko obretako udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.
- 6.- A.O.A., Arroako eskola berriko lanak martxan diren honetan, eraikin berriari materiala gordetzeko duten gunea oso txikia dela ohartu direla dio, eta ez dutela lekurik izango behar den guztia sartzeko. Horregatik, eraikin berrira pasatzen direnean, Arroa Beheko auzoan hutsik geratuko den lokaletako bat eskolako trasteak gordetzeko izatea eskatzen dute. Erabaki da proposamena onartzea.
- 7.- C. y R.U.S.L.ri Zubimusu kalea 3an egin behar dituzten lanak direla eta, 6 aparkaleku okupatzeko baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.
- 8.- A.H.E. eta A.G.E., Aizarnako udal-eraikinak (ludoteka, kontzejua, Kultur Etxeko ganbara, rokodromoa, bizikleten gela...) udaleko langileek garbitzea eskatzen dute. Erabaki da jakinaraztea egun Zestoako Udalaren gain dagoela Aizarnako frontoiko komunen garbiketa eta Udalaren baliabideak ikusirik, oraingoz ezin dela onartu eginiko eskaera.
- 9.- A.M.I., Arroa Behean parkea, plaza eta jardinak arkakusoz beterik daudela dio eta haur guztiak pikaduraz beteta daudela. Erabaki da jakinaraztea Udala jakitun dela auzoan arkakusoeekin arazoa dagoela eta dagoeneko horien aurkako tratamendua egina dago.
- 10.- I.L.A., Aizarnako A.baserriaren inguruan bi eskaera egiten ditu: beraien lur-eremuan dagoen ur-arketatik ~~1~~ kontadorea jartzeko baimena eta



ZESTOAKO UDALA

etxerako bidea hormigonatzeko edo egokitzeko eskaera, bide oso txarra baitute. Erabaki da jakinaraztea ur kontadorea jartzeko udal baimena ematen dela eta bidea pribatua denez, jabeak berak egin beharko dituela hormigonatze lanak.

11.- A.B.A., Alkartetxe parean dagoen zebrabidea berriro pintatzea eskatzen du, pintura deseginda baitago eta ondorioz arriskutsua. Erabaki da jakinaraztea udaleko brigadak egin beharreko lanen zerrendan sartuko dela zebrabidea margotzea.

12.- K.A.E.ri, Marduxarra kalea 8an duen etxearen alboko pareta harriz hornitzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

13.- A.M.E.B., S. baserriaren parean abiadura jeisteko salto bat dagoela adierazten du. Saltoak ez diela onik egiten, eta berau kentzeko eskaera egiten du; edota salto txikiagoa jartzekoa. Erabaki da jakinaraztea 2018ko uztailaren 12an eginiko batzordean erabakitakoa berresten dela. Hau da, ez da egokia ikusten saltoa kentzea, segurtasuna bermatzeko beharrezkoa delako jarri zen eta.

14.- M.V.L., Lizarraitz auzunean dauden garajeen kanpoaldean seinale, gurutze edo zerbait argiagoa ipintzeko eskaera egiten du. Jende askok aparkatzen omen du bertan eta ondoren isunak jaso daitezkeela dio. Erabaki da jakinaraztea udal brigadako lan-zerrendan sartuko dela Lizarraitz auzuneko aparkalekuak egokiago pintatzea.

15.- A.O.G., Lasaon errekarara irteera duen fekalen hoditeria dela eta, osasun eta garbitasun arazo bat dagoela dio. Horreka, osasun publikoan eta bizikidetzan arazoa dakarrela azaltzen du, eta infekzio gunea dela. Erabaki da jakinaraztea udala jakitun dela Lasao auzo osoan dagoen arazoa dela. Ondorioz, enpresa ezberdinei aurrekontua eskatuko zaio azterketa burutu ahal izateko.

16.- I.A.C., Lasaoko M., A. eta T.ko zubi gainean egurra daramaten kamioiak pasatzen ari direla dio. Bidea puskatzen ari direla eta dagoeneko buzoia bat ere puskatu dutela jakinarazten du. Erabaki da jakinaraztea egur enpresei ez zaiela baimenduko kanpoko egurra leku horretan pilatzea eta buzoia konponduko dela.

17.- L.A.I., herri honetan irisgarritasun arazoak daudela eta irtenbideak aurkitu behar direla dio. Horretan ados dagoela, baina Alonderoneko aldapan jarri den igogailua ez dela batere egokia esaten du (ingurumena, inpaktu bisuala, babestutako fatxada tapatzea...). Horrela, obra handiak egin aurretik herritarren partaidetza kontutan hartzea eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea hurrena egingo diren lan handietarako, Udalka kontutan hartuko duela herritarren parte hartzea.

18.- P.K.Eri., P. tabernaren kanpaldean 10 mahai eta 32 aulki jartzeko udal baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

19.- A.I.I., Etorra auzoan herriko ura jartzeko eskaera egiten du. Erabaki da jakinaraztea herriko ura Etorra auzoan jarri ahal izateko beharrezkoa den azterketa egingo duela Udalak.

20.- E.J.O.S., J.U.A.k eskatuta Lasaon haragitarako behi ukuilua eta biltegia jartzeko aurkeztutako proiektuaren aldeko txostena igorri du. Erabaki da dagokion tramitazioarekin jarraitzea.



ZESTOAKO UDALA

- 21.- E.J.I., L.P. eta E. S., Zestoako Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketarako dokumentua, Irao baserriaren inguruko lurzoru urbanizaezinari eta Sastarrain Baserri Eskolari dagokiona, jaso izanaren adierazpena aurkezten du. Erabaki da berri ematea.
- 22.- Ministerio de Fomentok, Zestoako Hirigintzako Plan Orokorra dela-eta, txostena igortzen du. Erabaki da HAPOa lantzen ari den Erdu enpresari igortzea aipatutako txostena.
- 23.- F.R.S., Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko uztailaren 12an eginiko bileran hartutako erabakiaren aurrean berraztertze errekurtsoa aurkezten du. Erabaki da berraztertze errekurtsoa gaitzestea, Zestoako zezen plaza berriaren instalazioko proiektua idazteko arduradun teknikoa den J.M.A.k aurkezturiko txosten teknikoan oinarrituta.
- 24.- U.U.A., 31/07/2018ko ebazpenaren kopia igorri du Udal honetara. Ebazpenean, A.M, H, egindako eskaeraren inguruko erabakia ematen dute, hau da, Ermua erreka ezker ertzean, industria-pabiloia babesteko 30 metroko luzerako harri-lubeta bat eraikitze lanak egiteari buruzkoa. Erabaki da interesatuari jakinaraztea obra horiek deskribatzen dituen dokumentazio teknikoa aurkeztu beharko duela udaletxean, dagokion obra baimena eskatuz.
- 25.- U.U.A., Sastarrain baserri-eskolako hondakin-uren isurketen baimenaren inguruko ebazpena igortzen du. Erabaki da berri ematea.
- 26.- E.J.E.G.eta A.S., Cestona-Cestona cto 3 linearen aldaketa Zubi-Ondo tz eta 45.euskarria, lurpeko linea elektrikoaren administrazio-baimena aurkezten du. Erabaki da berri ematea.
- 27.-E.J.E.G.eta A.S, Zubi-Ondo izeneko TZaren erreformaren administrazio-baimena aurkezten du. Erabaki da berri ematea.
- 28.- “Zestoako plangintzako Arau Subsidiarioen “A.R.1 Arroa-Goikoa” eremuan kokatutako apaizetxearen inguruko hirigintza hitzarmena onartzea, hitzarmenaren edukia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, zehaztuz hogeitun eguneko baliodun epean jendaurreko erakustaldian egongo da.
- 29.- M.A.I.k, hainbat eskaera aurkezten ditu: Uztapide plazan dagoen pasadizuan barandila jartzea, Zubimusu kalean dauden bi zebrabideak aztertzea, Zubimusu kalean dauden eskailera aurreko baldosak konpontzea. Erabaki da aurkeztutako eskaera guztiak aztertzea eta egin beharrekoak direla iritziz gero, brigadak egin beharreko lanen zerrendan sartzea.
- 30.- A.M.E.B., Sa. baserriaren parean abiadura jeisteko salto bat dagoela adierazten du. Saltoak ez diela onik egiten, eta berau kentzeko eskaera egiten du; edota salto txikiagoa jartzekoa. Erabaki da jakinaraztea 2018ko uztailaren 12an eginiko batzordean erabakitakoa berresten dela. Hau da, ez da egokia ikusten saltoa kentzea, segurtasuna bermatzeko beharrezkoa delako jarri zen eta.



Batzorde informatiboen bileren akten onarpena

2018ko irailaren 3an, Auzoak eta Baserriak Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

2018ko irailaren 11n, Gizarte Ongizate Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

Alkatetza ebazpenak- Honako Ebazpenen berri eman da:

* 129 zk, 2018ko uztailaren 4ko 128 zk. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren testua zuzentzeari dagokiona (Gizarte langilearen postuko ikastaroen puntuaketa).

* 130 zk, Arroaerrekako bidea 1 eraikinean esku-hartzeko gehineko epea hiru hilabetetako dela ebazten da, etxean EITea dela eta.

* 131 zk, Arteaga auzunea 13 eraikinean esku-hartzeko gehineko epea hiru hilabetetako dela ebazten da, etxean EITea dela eta.

* 132 zk, Gurutzeaga kalea 3 eraikinean esku-hartzeko gehineko epea hiru hilabetetako dela ebazten da, etxean EITea dela eta.

* 133 zk, Gurutzeaga kalea 6 eraikinean esku-hartzeko gehineko epea hiru hilabetetako dela ebazten da, etxean EITea dela eta.

* 134 zk, 2018ko abuztuaren 10ean, Argizulo Kultur Elkartek Zestoako geltoki zaharraren aurreko aparkalekuan Zirko ikuskizauna antolatzeke udal baimena.

* 135 zk, Zestoako zezen plaza ez-finkoa instalatzeko baimena.

* 136 zk, L.A.M. kontratatzea %100ean, etxez-etxeko langileen oporrak ordezkatzeko.

* 137 zk, Erdikalea 7 behe oineko Portale tabernako lanen obra amaiera dokumentazioa eta jardueraren aurrekomunikazioa ontzat ematea.

* 138 zk, L.A.M. kontratatzea %82an, etxez-etxeko langileen oporrak ordezkatzeko.

* 139 zk, herriko festetan autotoxokeen pista ezartzeko baimena ematea A.J.S.M.ri.

* 140zk, herriko festetan zaldiko maldikoa ezartzeko baimena ematea F.D.S.R.i.

* 141 zk, herriko festetan tiroko kaseta eta ahatetxoaren jokua ezartzeko baimena ematea A.D. S.C.ri.

* 142 zk, kiroldegiko frontoiko instalazio elektrikoaren lanak egiteko esleipena egitea Z. E.ri.

* 143 zk, herriko festetan ohe elastikoak eta White Pol puzgarria ezartzeko baimena ematea F.D. S.R.i.

* 144 zk, M.L.U.I.i lizentzia ematea udal jabetzako baso pista eta bideen erabilera berezia egiteko.

* 145 zk, J.E.A.ri lanaldia igotzea %75era, etxez-etxeko zerbitzuan.

* 146 zk, B.T.F.i lanaldia igortzea %100era, etxez-etxeko zerbitzuan.

Galdera eta erreguak. Ez da egon



ZESTOAKO UDALA

6.- GALDERA ETA ERREGUAK

Zestoan, 2018ko azaroaren 23an

Idazkaria,

O.e

Alkateak,